

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Ibilgailuen gaineko 2017ko zerga ordaintzeko borondatezko epea

Jesus Berganza Gonzalez Erriberagoitiko Udaleko alkate lehendakariak:

JAKINARAZTEN DU: zerga hauen 2017ko ordainagiriak kobratzeko moduan daudela:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

Borondatezko epea: 2017ko maiatzaren 18tik ekainaren 30era.

Borondatezko epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio irailaren 1etik aurrera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko errekararekin kobratuko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak eta gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Erriberagoitiko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2017ko maiatzaren 17a

Alkatea

JESUS BERGANZA GONZALEZ